



2000KO OTSAILAREN 14KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, 2000ko otsailaren hamalauan, iluntzeko zortzietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Beratarutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Julio Ibañez Urteaga, Urko Irastortza Aldanondo.

Inazio Estensoro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Jon Agirre Garmendia, Jose Antonio Dopazo Martin eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira etorri.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekiten zaio, 2000ko martxoaren 12an egingo diren Espainiako Kongresu eta Senadurako Hauteskundeak direla eta Hauteskunde Mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari hain zuzen ere, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26,4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzeko, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Jaunak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko bederatzia eta zortzi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

